

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Genius Lens-en negozioak funtzionatzea ahalbidetu ahal izateko, hornitzaile eta bazkide sareak osatzea beharrezkoa iruditzen zaigu, eta horretarako, funtsezko elkarketak egin behar ditugu.

Beste elkarte, enpresa zein negozioen parte hartzea beharrezkoa eta derrigorrezkoa iruditzen zaigu gure produktuaren salmenta egiterakoan, hornitzaile zein elkarteetako bakoitzak baliabide bat eskaintzen baitigu produktua osatu ahal izateko, eta banaketa horrek eraginkorrago bat egitera ahalbidetzen baigaitu.



Elkarketa mota desberdinetaz hitz egiterakoan lau aukera atera baditzakegu ere, bakarra da Genius Lens-en beharretara egokitzen dena.

Lehiakideen arteko aliantzak egiteak ez liguke onurarik ekarriko, produktua sortzea zaila izan baldin badaiteke ere, irabaziak ateratzeko eta enpresak guk nahi dugun bidea hartzeko askoz ere errazagoa egiten baitzaigu hasieratik gure beharretara bakarrik mugatzen den enpresa bat sortzea, bitartekariekin adostasunak lortzen saiatu gabe.

Lehiakide ez dugun enpresa batekin elkartzea ere ez da gure ideia, hasiera batean gure produktura mugatzen den enpresa batean zentratu nahi dugulako, eta ez dugu beste zerbitzurik eskaini nahi. Horregatik, oraingoz aurrera bakarrik egiteko asmoa dugu, aliantzarik adostu gabe.

Beraz, aurreko hiru aukerak deuseztatuta, gure beharretara hoberen egokitzen den elkarketa erosle eta hornitzaileen arteko harremana da, materialen eskuragarritasuna



bermatzeko aukera ona baita guretzat. Aliantza honen bitartez, gure produktuaren sorkuntza aurrera eraman ahal izateko beharrezko baliabideak eskuratzea bermatuko dugu.

Beharrezkoak zaizkigun hornitzaileak ondoren aipatutako hauek dira:

Gure produktua aurrera ateratzeko garaian, kimikan edo horrelako zerbaitetan espezializatutako zientzialariak beharko genituzke, basoaren lehenengo atala gauzatzeko, basoak droga detektatuko duen atala. Horretarako EHUko kimikako eta ingeneritza kimikako ikasleekin akordio batera iritsi gara. Akordi horretan adostu dugu guk beraien gradu amaierako lana finantziatuko dugula eta beraien lana gure basoaren inguruan egingo dutela.

Gure basoa programatzeko (basoaren bigarren zatia egiteko) laguntza beharko dugu. Informatika arloko enpresa bat kontratatu dugu gure basoaren programazio zatia garatzeko. Zati hau garatzeko [Ibermatica](#) enpresa kontratatu dugu. Enpresa honekin elkarlanean egongo gara denak batera kimika arloko zatia eta informatika arloko zatia modu egoki eta armoniatsuan lotzeko.

Gure produktuak hasiera batean edalontzi forma hartu ahal izateko, plastiko hornitzaileak eta honi forma emateko makinaria beharrezkoa izango da. Horregatik pentsatu dugu, [Monouso](#) enpresarekin akordio batera iritsi gaitzekela, horrela, hauek plastikoa izango lukete edalontziak fabrikatzeko. Halere, kimikariak ahalbidetuko genizkieke hauek enpresari eskainiko lieke kimikoen jakintza, beharrezko nahasketa egin ahal izateko eta edalontziak erreakzionatu ahal izateko drogaren aurrean.

Edalontziak droga detektatzen duen momentuan edalontziak bonbila bat izango du hartzaileari jakinarazteko droga dagoela. Bonbila hauek hornituko gaituztenak [Luzenled](#) enpresak izango dira. Enpresa honek modu berean [Monouso](#) enpresarekin ere akordatuta izango du, hauek edalontzia ekoizten duten momentua bonbila ere gehitzeko.

Horregatik beharrezkoa zaigu aipatzea, [Monouso](#) enpresaren menpean egongo diren enpresak haien artean ez direla lehiakideak izango, bakoitza ekoizpen prozesu bat hartuko baitu, denak batera produktu bera ekoizteko.



Elkarketa mota desberdin hauek aipatzeaz gain, gure enpresako kide bakoitzak sail desberdin batean lan egingo du, dagokion enpresarekin.

Eneritz Otegiren kasuan, produktuaren diseinuaz zein honen ekoizpenaz arduratuko da. Horretarako, lehenagoztik azaldutako enpresa guztiekin hartu-emanak izango ditu; hauek informazio osoa helaraziko diote Eneritzi; horrela, Eneritzek edalontziaren inguruko erabaki guztiak hartuko ditu; ondoren, Getaryri adierazi eta honek enpresei esateko.

Getary Gonzalez, aldiz, enpresa guztiaren funtzionamenduaz arduratuko da. Horrela, elkartuko garen enpresekin erlazioan mantenduko da, gure erabakiak zein kexak edo proposamenak hauei helarazteko eta edalontziaren salmenta modu egoki eta eraginkorrean egiten ari dela ziurtatzeko.

Amaitzeko, lune Diezek, enpresaren kapitalean esku hartuko du. Ardatz nagusi jarriaz, enpresa ororen helburua irabaziak eta ahalik eta errentagarrien izatea delarik, helburu hau zehatz mehatz bete nahi izango du. Bestalde, enpresak galerak izaten ari den momentuan aldaketa desberdinak proposatuko dio, Getaryri jakinarazteko eta honek enpresei helarazteko.